

## PIZKUNDERAKO PREST

Azken hamar urtetan Uribe Kostako eskola publikoetan hezi izan diren haurrak euskaraz bizi izan dute haien haurrentzat. Nagusitzean, berriz, "euskaraz bizi nahi dut" leloa duten kamisetak erabili arren, esunerokoa gaztelaniaz bizitzea erabaki dute. Ondorioz, soziolinguistikoak datuek erakutsi dute euskara dakiten pertsonen kopurua iso esin dela baina aldi berean hiztun kopurua murriztu. Adituek azpimarratu dute hizkuntzaren Pizkundea gazteen esku dagoela eta beharrezkoa dela erabilera sustatzea.

Argi dago datuek errealitate gardina erakusten dutela eta gure inguruan errealitate horretaz ohartu gaitzakeela. Esate baterako, institutuetan ikasleek euskara irakasgai bezala ikusten dute eta ez bizimodu bezala. Izan ere, irakasleek ikasleen euskararen erabilera kontrolatzen dute. Horrenbestez, gazteak euskaldunen hizkuntzan mintzatzeko behartuta sentitzen dira eta ezinbestekoa da eroso sentitzea hizkuntza bat erabiltzeko. Edonola ere, ulertu beharra dago irakasleek euskararen esakera aztertuta dutela eta honen desadostasun arduratuta daudela.

Bestalde, gaur esurto adingabeak digitalizazio garaian bizi dira eta sarri hanetan "tik tok" eta "instagram" bezalako aplikazioetan erdaldun edukiak nagusi dira. Horrek euskarari eta beste hizkuntza gutxituei ere mugak jartzen dizkio. Zorionez, euskaldun influentzerrek gero eta gehiago dira. Euskara zabal dadin, euskal sortzaile txikiak babes ditzakegu, mundu mailan euskara erabat babesteko.

Oro har, datuen arabera Euskal Herriko adingabeen %38k ditu zailtasunak euskaraz mintzatzekoan. Ez da harritzekoa. Adibidez, pertsona batek euskaraz hitz egitean eta gramatikalki hanka sartzean, normalean, zuzendu esiten zaio eta lotsa sentitzen du. Gaztekeraz, ordea, akatsei ez zaie garrantzi handirik ematen. Hori dela eta, jendeak ingurukoekin gaztekeraz hitz egitea erabakitzen du. Halaber, euskara dinamikoa da, etengabe aldatzen ari da eta eta zuzenketek hobetzeko helburua izanagatik ere, akatsak hizkuntza bat ikastearen parte dira. Eroriz ikasten da oinez.

Laburbilduz, euskara gazteak ureztatutako behar dugu landare lehorra da. Landare honi loreak haz dakizkion Uribe Kostako ikastetxei euskara sustatzeko ekintzak antolatzea proposatzen diet. Hala nola, hitzaldiak eta euskaraz normaltasunez hitz esiteko txakrak. Euskara pizkunderako prest dago eta gazteak euskarari lasuntza emateko ere bai.